

- **Zer berri:** Peio Etxeberria: "Hitzik bare laga ninduan harreriak"
- **Kultura:** Erromerixa Eguna eta auzoko jaiak Ezozin asteburuan

soraluzeko
hamabostekaria **266.** alea
2012ko ekainaren 8an

@pil-pilean

A woman with dark hair, wearing a purple patterned cardigan over a dark top and dark pants, stands behind a chain-link fence. She is looking towards the camera with a serious expression. The background shows a paved walkway and buildings in an urban environment.

Lupe Gomez:

**“Ez dezatela gure pisua saldu,
mesedez”**

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria

ihesi.com



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

argia
proiektua



AITOR MADRID



MARKEL ARIZAGA

IKASI, DESIKASI, BERRIKASI

Aupa Markel! Bizitzan jaixotzen garanetik hor dihardugu, egin biharrekuak ikasi eta ikasi. Gero, ikasittakua egitten dogu eta sarri, inertziak egitten dogu pentsatu bare. Badirudi egin biharrekuak ezin dala ezbaixan ipini. Denporiakin, beste pertsonekin daukagun harremanen eraginez, ondo zeguala pentsatzen genduana, ez zeguan hain ondo edo gaizki zeguan. Zein garrantzitsua dan pertsona ezberdinekin harremanak izatia eta hauetan sakontzia, begiak zabalduaz. Bizitzan aurrera egiteko eta beste bide batzuk daozela jakiteko ezinbestekua dala uste dot.

Hau alor ezberdinetan gertatzen da. Izanfamilixanedolagunartian, lanian edo ikasketetan. Ez dotsagu beldurrik izan bihar beti era baten egin doguna beste era egokixago batian egin daittekeela jakitiari. Baina hain barneratuta dittugu eskema zaharrak... Etorkizunian oso garrantzitsua izan bihar omen da ikastia, desikastia eta barriz ikastia, eta hau egiteko gai ez danak gaizki pasatuko dau.

Informatika alorrian esaterako, urte gitxixan hainbat bide zabaldu dira. Software erabiltzeko eredia aldatu egin da eta Windows erabiltzetik Ubuntu erabiltzeko aukeria daukagu adibidez. Software libriakin elkarlana eta solidaritatia bultzatzen da, software jabedunakin lehiakortasuna eta norgehiagoka.

Jarraitu biharreko bidia garbi daukat eta lelenguakin gelditzen naiz ni. Gainera, egun bizi dogun krisixak alor askotan aldaketak eragingo dittuala jakitun, bazter deiguzen joera zahar antzuak beste barri eta emankorraguen gaittik.

“

“Bizitzan zein garrantzitsua dan pertsona ezberdinekin harremanak izatia”

Aitor Madrid

“Bakoitza bere bidian hobeto ibili ahal izateko, ikasi deigun bestiengandik”

Markel Arizaga

”

Iepa Aitor, barriz be hamendik? Ezin dogu ukatu Igu geu atzian laga dittugun pausuen emaitza zuzena garala, eta hartutako bidia desberdina izango balitz, biharbada ez ginala pertsona bardinak izango. Dudarik bare jαιο ginanetik aldatu ezingo diran gauza ugari izango dittugu gure baittan, baina oinarri horretatik hasitta kanpotik etorri jakuzen elementu orok gure izaeria zizelkatzen dabela pentsatzen daben horretakua naiz ni.

Baina arrazoi bardina dala eta, inguratzen gaittuan munduan seguru sentitzen dogu geure burua, azken finian geure izaeran parte bat besterik ez dalako. Askotan, gauzak gaizki daozela jakinda be, ez dogu konponbidia bilatzeko pausurik emoten, gure erosotasunetik urtetzeko gogo izpirik bare,

segur aski zu eta ni lelenak, ezta? Zorionez, geure bidia ibiltzeko eta batez be, bidia zela ibili erabakitzeke gai garan bakarrak geu gara. Zuk esan dozun moduan, gero eta gauza gehixago ezagututa, erabakitzeke argudixo gehixago izango dittugu eta beraz agertzen jakuzen bidegurutzetan erabaki egokixa hartzeko aukera gehixago izango dogu. Gainontzeko pertsonen bidietan aurkittutako lorak gure bide bazterretan ipintzia baino gauza hoberik ez dago, bide hori ondiok eta aberatsagua eta polittagua bilakatzeko.

Zeure esaldixan ordez nik beste bat aukeratuko neuke: ikasi, ikasi eta ikasi. Beste batzuen onurarako bakarrik diran konpetentzixa eta borroka praktikatu ordez, solidaritatia eta elkarlana bultzatzia ezinbestekua da. Danok hemen bizi bihar dogula jakinda, bakoitza bere bidian hobeto ibili ahal izateko, ikasi deigun bestiengandik.

Goguan hartzeko

“Eroriz eroriz ikasten da zutik”

Gotzon Garate



GUTUNAK

Gipuzkoa Zero arazo?

Azkenaldian pil-pilean dago zaborren gai gipuzkoarran ahotan. Atez-atekoa dela, 5 edukiontzi direla, zaborteziak gainezka ditugula, errauste planta behar dela, etab. Arazoa hor dagoela denok dakigu, behintzat zerbaitetan ados gaude denok. Pasa den astean Gipuzkoa Zero Zaborreko kide bi etorri ziren beraien lan eta planteamenduak erakustera arazo honen aurrean. Arazorik izango ez balitz bezala, herritar mordo bat falta zen bertan. "Honek nirekin zerikusirik ez balu" bezala etxean geratu

ziren edo zineten. Gogoan izan arazoa hor dagoela eta egunetik egunera haundiagoa dela. Soraluze Zero Zabor berandu baino lehen martxan izango da. Deialdi zabalari erantzunez, poltronak alde batera utzi eta batu gaitezen guztion artean etorkizun hobe baten alde lan egiteko, guztion ekarpen eta erabakiekin. Eztabaida gunea sortzear dago, indartsu eta gogotsu. Bitartean aire garbiak bira gaitzan ekainaren 17an Donostian ikusiko gara.

Iñigo Uribe txeberria

Arau subsidiarioen aldaketaren zergaitia

Maiatzaren 23an izandako ohiko plenoan alderdi politiko guztiok, aho batez, arau subsidiarioen aldaketa puntuala onartu genuen. Zeintzuk izan dira aldaketa jasan duten area desberdinak eta zergatik?

R8 alde zaharra; Frontoi kaleko 1 zenbakiko eraikina (frontoiko erakin zaharra) ordenazioz kanpo kalifikatuta zegoen. Aldaketarekin kontsolidatu egiten da. Etorkizunari begira, erakinaren zaharberritzea posible eginez. Lan hauek burutzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza departamentuari dagozkio. Udal gobernuari eskatu genion egin ditza beharrezko gestioak, lehenbailehen, eraikina zaharberritzeko.

R16 Asiloa; Zaharren egoitzako eraikina. Bertan, gure nagusiak kanpoaldean egoteko estalpe bat egin nahi da. Indarrean zegoen araudiak ez zuen aukera ematen. Ondorioz araua aldatu egin da estalpea egin ahal izateko. Badirudi aldaketa burututa, estalpea denbora gutxiren buruan egingo dela.

Azkenik arauen 118 artikulua ere aldatu da, igogailuei dagokiena. Arrazoiak, Zeleta auzoko bizilagunen eskaera, gune honetan igogailuak eraiki ahal izateko. Indarrean zegoen legediak ez zuen aukerarik ematen igogailuak egiteko gune honetan. Aldaketaren ondorioz posible izango da, bizilagunen eskariari erantzunez. Informazio gehiago www.pnvsoraluze.com.

Soraluzeko EAJ/PNV udal taldea

Ongi etorri Peio

Zu hemen izatea izugarritzko poza da guretzat, 23 urte preso eta herritik urrundua izan eta gero bazen garaia gure artean egon zintezan. Badirudi urte luzetako borroka eta azken urtean, urtarilaren 7ko mobilizazio erraldoiak hasiera eman zion herri dinamikak bere fruituak ematen ari direla. Zu hemen izateak bide onean goazela adierazten du eta borroka merezi duela, eta aurrera egin behar dugula tinko gure helburua lortu artean. Argi dugu, zu etxera ekartzea denon garaipena izan dela; herri mobilizazioaren garaipena eta ospatu beharra daukagula. Oraindik garaipen asko gelditzen dira eta soraluzetar guztiak herrira ekarri arte eta beste

guztiak beren herrietan izan arte, ez dugu etsi behar. Ongi etorri Peio, hemen gaituzu nahi duzunerako! Eta bukatzeko agur bat bidaltzen dizuegu Eloi, Lurdes, Sebas, Sabin eta errepresaliatu guztiei, laster gure artean izango zaretelakoan.

- Euskal presoak Euskal Herrira
- Zigorren 2/3 eta 3/4 bete dituzten presoak kaleratzea.
- Gaixotasun larriak dituzten presoak askatzea, eta bestelako gaixotasunak dituzten presoak egoiki zaintzeko beharrezko neurriak hartzea. Presoen osasun eskubidea bermatzea.

Soraluzeko Herrira

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribe txebarría **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Aiora Elizburu
Aitxitxa eta Amama

Zutabe honetan azkenengoz Zidatzi nuenean, nire amari eta orokorrean ama guztiei omenalditxo bat egin nahi izan nien. Denbora nahikotxo pasada ordutik eta jada ni ere amatxo bihurtu naiz. Tik-tak tik-tak zelako azkar doan denbora! Eta orain ama naizela, goizero kalean nabilela, egunero ikusten ditut aiton-amonak bilobak zaintzen, eurekin paseotxo ematen... Gurasoak lanean daudelako edo eresketa batzuk egiten gaudelako edo etxea jasotzeko denbora behar dugulako beti laguntzeko prest agertzen direnak. Umeak ikastolara eramanez, gaixo daudenean sendagilearengana lagunduz... Edozein egunetan, edozein ordutan hor daude, okindegian "flauta" erosten, goxokidendan "gusanitos" edo jostailudendan baloia. Beraiek haurrak baino alaiago, Jainkoari edo batek dakinori osasuna eskatzen bilobak nola hazten diren ikusteko eta beraiekin jolasteko. Azkar eta lanpetuta bizi garen garai honetan ezinbestekoak ditugu aiton amonak, seme alabak hazten eta hezten laguntzen baitigute eta askotan, hau guztia eskertzea ahazten zaigula iruditzen zait. Horregatik nire begirunea munduko aitona amona guztiei eta nire esker ona Suarren aitxitxa eta amamei.

Ana Digon, nekazaritza birsortzailean aditua

Gasteiztar honek nekazaritza birsortzailearen oinarriak, funtzionamendua eta erabilera azalduko ditu hitzaldi bidez ekainaren 13an zinean egingo den solasaldian. Emankortasuna galtuta duen lurra birsortzeko naturak berak eskaintzen dituen baliabideak zeintzuk diren eta nola kudeatu daitezkeen azalduko du, irudien laguntzaz.

Zertan oinarritzen da zehazki nekazaritza birsortzailea?

Landa eremua garatzeko eta lantzeko naturak eskaintzen dituan baliabideak aplikatzen datza. Animalixen laguntzaz naturak berak badauka emankortasuna mantendu, haunditu eta birsortzeko ahalmena, inungo ongarri kimiko edo makinari erabili bare.

Zein modutan?

Aintzina, superproduktuak existitzen ez zian sasoietan, produktu osasuntsuak lortzian ideia aberastasun gainerik zeguan. Nekazarixak lurra lantzeko naturak berak eskaintzen zittuan baliabideak bakarrik erabiltzen zittuen. Baserrixetako animalixen gorotzak egun erabiltzen diran ongarri kimikuen papera betetzen zeben.

Beraz animalixak nekazaritza birsortzailean oinarria dira.

Beste hainbat xehetasunen artian. Animalixak jandako bedarrak indartsuago ernaltzen dira eta horrek, lurra emankor mantentzia eragitzen dau. Honen gorotzak ongarri moduan erabilitta ez dago kimikuen biharrik.



Ana Digon, nekazaritza birsortzailearen aitzindari den Darren J. Doherty australiarrekin.

Zein abantaila eskainiko dotsa horrek nekazarixari?

Onurak nekazarixandako ez ezik, gizarte osuantzat izango dira, bereziki inguru naturalandako. Ganaduakin ongarri kimikuen erabiliria desagertu egingo litzake eta horrek nekazarixan kostu ekonomikuak murriztuko litzake. Produktu osasuntsuak landu eta salduko litzakie eta jaten doguna garanez, osasuntsuago biziko ginake.

Zein urrats emon bihar ditzugu horretarako?

Guk auzo merkatuak proposatzen ditzugu, ekoizle-kontsumitzaile harreman zuzena oinarrian daukenak, industria haundiak alde batera laga eta elikadura burujabetasuna bultzatze aldera.

Soraluzeko nekazarixeri zer esango zontseke?

Beren lana ezinbestekua da naturian garapenerako, eta ondorioz, gizartian garapena ziurtatzeko. Nekazaritza birsortzaileak etekin ekonomikuak ez ezik, landa garapena ziurtatzeko erraminttak eskainiko dotsez.

"Animalixen gorotzak erabilitta ez dago kimikuen biharrik"

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

HNOS. BENITO ANAIK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

DBHko ikasleak udal ordezkariekin bildu dira

A genda 21 programa dela eta, institutuko ikasleek mugikor-tasun jasagarria izan dute langai aurtengo ikasturtean. Herri hobea irudikatzeko ahaleginetan, aurreko martitzenean saio aretoan udal



Saria irabazi duen ikasle taldea.

gubernutaldeko ordezkariekin zuten bileran zenbait proposamen luzatu zizkieten, baita hainbat gomendio eta kexa egin ere. Besteak beste, kañoi fabrika dagoen lekuan parke bat ipintzeko proposamena egin zuten; Gabolatseko zubian gauez argi gutxiegi egoten dela jakinarazi zieten eta Atxuri kaleko autobus geltokiko espaloia estuegia dela. Gazteentzat ekintza eta aukera gehiago eskatu dituzte, horren barruan, Gaztetxokoa martxan ia noiz hasiko den galdegin zuten. Arluziaga alkateak laster erabilgarri egingo dela erantzun zien.

Kultur taldeentzat lokalak txukuntzen

Merkatu plaza gaineko lokalak herriko kultur taldeentzat egokitu nahi ditu udalak eta dagoeneko hasi dira txukunketa lanak egiten. Hain zuzen, lokalen banaketa egite aldera, danborradak erabiltzen duen gelan itxitu-

rak egiten dihardute. Laster gaintzeko gelak txukunduko dituztela jakinarazi du udalak eta Kontrargi Argazki Kolektiboak gela propioa izango duela. Gaintzeko lokalak kultur talde batzuek erabiliko dituzte.

Bertakoa kontsumitzen

Bidetxor kontsumo taldeko lagunek aste honetan jaso dute lehen otarra. Bertako produktuak eskura izan eta bertakoa kontsumitzeko sortu zuten taldea eta saskia gustu guztietarako produktuek osatzen dute, denak inguruko baserrietan ekoitzi, landu edo hazitakoak: marmeladak, arraultzak, garagardoak, barazkiak, ogiak eta txerri okelak..



“Aire garbiak bira nazan” ekimenera autobusa

Errauskailu bidezko zabor trataera salatu eta birziklapenaren aldeko urrats sendoak eman daitezke eskatzeko, Sorluzeko Zero Zabor taldeak ekainaren 17an errauskailuaren kontra Donostian egingo den ekimenera joateko autobusa antolatu du. Irteera 9:00etan izango da Estaziño kaletik eta 13:30ean itzuliko dira herrira. “Aire garbiak bira nazan” lemapean kolorez betetako mosaiko erraldoia margotuko dute bertaraten direnek.

Nekazaritza birsortzailea mintzagai

Ana Digon gasteiztarrek lurra era naturalen eta kimikorik gabe lantzeko teknikak azalduko ditu ekainaren 13an, arratsaldeko 18:30ean zinean egingo den berbaldian. Solasaldia nekazaritza birsortzaileari buruzko sarrera eginez hasiko du eta ondoren adibide praktikoko batzuen azalpenak emango ditu. Lurra lantzeko nekazaritza birsortzailean zein teknika erabiltzen diren ikasi nahi dutenak zitara gonbidatuta daude.

Informazio gehiago: www.agricultura-regenerativaiberica.wordpress.com

Paitxa kumeak errekan

Erretratu hau aste honetan bertan jaso-takoa da, erreka ondoan paseoa ziharduen herritar batek jaso zuen aldizkari-rida bidaltzeko. Ederra da sasoi honetan paitxa eta bere kumeak errekan gora eta behera ikustea, natura zaintzea zein beharrezkoa den erakusten digu. Mila esker irudi eder hau bidaltzeagatik!





MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



JUAN MARI
ARRINDEGIA

943 75 24 40

MERKATU PLAZA

ESKERRAIK ASKO PLAZENTXITARRI
GUGAN IZANDIKO KONFIANTZAGATIKI

Sorgin dantza ikasteko entseguak

Hilaren 23ko gauean, "Udate gabean" suaren bueltan sorgin dantza egin nahi dutenek dantza entseatzeko edo ikasteko aukera izango dute datozen egunetan Urrats dantza taldeko lagunekin batera. Entseguak ekainaren 14an, 19an eta 21ean egingo dituzte, arratsaldeko 19:00etan Plaentxi Herri Ikastetxean.

Murrizketen kontrako elkarretaratzea

LAB sindikatuak Madrilgo gobernuko sektore publikoan ezarri nahi dituen murrizketak salatzen proposatutako bi orduko lanuzteak jarraipen txikia izan zuen Soroluzen. Hala ere, Plaza Barrixan egin zuten ordu erdiko elkarretaratzerara jende gehiago batu zen. Burujabetza ekonomiko eta politikoa aldarrikatzea zuen helburu aipatutako lanuzteak eta bereziki, osasungintza, irakaskuntza eta administrazio publikoetako langileei zuzenduta zegoen.



Irure auzoko kalteak konpontzen

Irure auzoan azaroko euriteek eragindako luiziek sortutako kalteak konpontzen hasi da Construcciones Mariezkurrena S.L. enpresa, Bidegiren ardurapean. Zehazki, Iraola-Etxebarri baserri ondoan eskoilera bat eraikitzen hasi dira, irudian ikusi daitekeen moduan.



Peio Etxeberria: "Hitz bare laga ninduan herritarren harreriak"

Maiatzaren 20ko arratsaldean aske geratu zen Peio Etxeberria preso politikoa, Auzitegi Konstituzionalak 197/2006 doktrinaren inguruan defentsak jarritako helegitea onartuta. Irteera eguna 2006ko irailaren 10ean bazuen ere, doktrina ezarrita zigorra 2019ra arte luzatuta zuen. 1989an etxean atxilotu eta Antiguoko kuartel militarrean hasi zen bere inkomunikazio aldia. Zuzenean Madrilera eraman zuten eta orduko oroitzapenak oraindik amesgaiztoak eragiten dizkiotela dio.

Guztira 23 urte eman ditu preso eta hamar bat espetxetik pasatakoa da: Karabantxel, Alcalá de Meco, Herrera de la Mancha, Cuenca, Málaga, Ibiza, Valentzia eta Mallorcako espetxeetatik igaro ostean, Castelloko espetxean eman ditu azken hamalau urteak, gehienetan isolatuta.

Ongi etorri beroa

Arratsaldeko 16:00etan jakinarazi zioten egun horretan bertan irtengo zela kalera eta ordurako senide eta lagunak espetxeko atean zain zituen. Soroluzera goizaldeko ordu txikietan heldu ziren eta berrogeita hamar lagunek koadrilak egin zien harrera.

Amaren etxeraino lagundu zuten Etxeberria, trikiti doinu artean eta momentu hunkigarriena horixe izan zela gogoratzen du "Hitz bare laga ninduen, zer egin eta zer esan ez nekixala". Hurrengo egunean ehunka lagunak egindako ongi etorria emozioz beteta gogoratzen du: "ezagutzen ez neban gazte jende mordua hurbildu zan neregana

eta urtietan ikusi barik neuzkazen lagunak be bertan zeren, sekulako momentua, hunkigarria benetan". Egunak etxekoan berotasunean pasatzen dituela kontatu du. Bere emazte Pilik asko lagundu diola "berak, nere familia eta lagunak moduan, asko sufritu dau, astebururo errepidan alde batera eta bestera. Egun aplikatzen dan dispertsio politikiak milaka euskal herritarren etsipena bilatzen dau, baina ez dabe lortuko, asko garalako preso danak askatzeko batera tira egingo dogunak".



Peioren harrera eguneko hainbat momentu.

Elizpe Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikusteina
- Implanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

Tel. 943 75 25 67
Elizburu 3 behe, Soroluz

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20 000 434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Etxea agindu eta kalegorria ikusi

2005. urtean hasi zen kontua da honakoa. Promociones Uneberri S.L. enpresak Errekalde kaleko 3, 5, 7 eta 9 atarietan etxebizitza berriak egiteko interesa agertu zueneko. Eskaintza honen aurrean, jabeen artean jarrera desberdinak zeuden, baina inork ez zuen esperoko horren txarto amaituko zuenik: ez etxe eta ez diru. Gertatutakoa kontatu digute.

Traturako prest

Lupe Gomez eta bere familia Errekalde kaleko 5 eta 7 zenbakietan hainbat etxebizitzaren jabe ziren, enpresaren ordezkari Manuel Aizpururekin tratua egiten lehenak eurak izan ziren.

Aizpuruk, bi etxebizitzaren erakitze lanak eginda zituen lehenago Errabal eta Santana kaleetan. Horrekin fidatuta, tratua ixteko tramiteekin hasi ziren eta aipatu etxebizitzaren trukean hiru etxebizitza eta bi lokal komertzial hitzeman zituzten:

“Bien bitartean beste lokal bat eskaini zidan negozioarako, eta alokairua ordainduko zidala zin egin zidan”.

Etxea lagatzeko asmorik ez

Ainhoa Luque bestetik, erralitate oso desberdina bizitzen ari zen. Errekalde kaleko 9. zenbakian bizi zen bere familiarekin. Kontratista euren etxeke atea jotzen hasi zenean, familiak hasieratik, ezezko boro-bila eman zion. Dioenez,

zazpi kontratu desberdin eskaintzera ere iritsi zen: *“Gure etxea negoziatuko ez genuela argi geratzen hasi zitzaionean, presio haundiagoa egiten hasi zitzaigun eta mehatxuekin hasi zen. Guk ez genuen inora joan nahi”.* Gainontzekoen jabeak tratuak egiten hasita zeuden eta eurak ziren geratzen ziren bakarrik.

Ainhoa Luque:
“Guk ez genuen inora joan nahi”

Horrela, Ainhoa eta bere neba, Uneberriko ordezkaria ikertzen hasi ziren. Euren senak zioena beteko zen: hainbat epaiketa zain zituen, beste eraikuntza batzuetatik zetozenak: *“Gure etxea utzi behar bagenuen, beste norbaitekin akordioa egiteko prest ginen gu, baina ez Aizpururekin. Beste jabeek jakinarazi genien dena, eta mesedez, gelditzeko eskatu genien, ez fidatzeko berarekin. Baina aurrera egin zuten”.*

Etxeen eraisketa

Lau etxetatik hiruk eraisteko baimena emanda zutelarik, 2006an hasi ziren lehenengo etxeak botatzen. Horrekin batera, Ainhoaren etxean arrakalak agertzen hasi ziren eta lanak gelditu egin behar izan ziren. Aizpuruk mehatxuka jarraitu ei zuen: *“Etxea eroriko da zuek barruan zaudetela eta azkenean ni salatuko naute, ikusiko duzue!”* esaten ziren. Hainbeste etortzen zen, jazarpen eta mehatxuengatik salatuko nuela esatera iritsi nintzen”.

Presioa etengabea zela, amore eman zuten eta permuta bat akordatu zuten Uneberriekin, euren etxebizitza, pisu eta garaje baten trukean.



Amesgaiztoaren hasiera, Luperen berbetan

Gomez eta bere familiak, ustez, tratu ezinhobea sinatu zuten. Ederregia, egia izateko. 2008ko uztailean, lanak bukatzeko 3 hilabete eskas geratzen zirela Lupe Gomez jakinarazten diote Aizpuruk besteak beste, ez dela lokalaren alokairua ordaintzen. Ustezko iruzurra azaleratzen hasi zen. Salaketa ipini eta lanak geldiarazi zituzten.

Ordurako, salerosketa librerako ziren 15 etxebizitzetatik 10 salduta zeuden. Askok mailegua eskatu zuten bankuan, kontratueta asko ahoz itxi ziren, herriko taberna batean elkartu eta Uneberriren zigilua soilik zeramaten dokumentuak sinatuz.

Enpresak kiebra jo eta kaudimengabe deklaratu zen. Berarekin 200 milioi euroko zorrak utziz. Permutak ezerezean geratuko ziren eta bertan pisua erosteko asmoa zuten horiek inbertitutako milioiak desagertu.

Udaleko idazkariak esandakoaren arabera, Gomezek epaiketara eraman zuen Uneberri enpresa, eta sententzia bidez kalte ordainak jasotzeko eskubidea onartu zion epaileak, baina dirurik ez. Promociones Uneberri likidatuta dago eta ondasunik ez duenez kobratzeke gelditu dira. "Hartzekodunen lehiaketa" bidez, enpresaren zorrak kitatu ziren. Aizpuruk mailegua Arkitektoen Kutxa-ri eskatu zion. Epaitegiak lehenetsuna eman eta berekin zuen zorraren zati bat kitatzeko Errekaldeko orubea eta eraikina eman zizkion trukean.

**Lupe Gomez:
"Ez dezatela
gure pisua saldu,
mesedez"**

**Udala Arkitektoen
Kutxarekin harremanetan da**

Eraikitze lanak hasita daude berriz. Etxebizitza erosi nahi dutenek (10 erosletik 4 interesatu geratzen dira) gehiago ordaindu beharko dute lanak bukatzeko. Trukea adostu zutenek ordea, ia ez dute ezer berreskuratzeko aukerarik, badirudi Arkitektoen Kutxa eurekin ahaztu dela.

Eta zer gertatuko da erantzuleekin?

Kontratu guztiak Promociones Uneberri S.L. ren izenean sinatu zirenez, ezin da Manuel Aizpururen kontra jo. Aizpuruk bere defentsan esan du, "haiek (erosleek) denak baino gehiago galdu" duela, eta dirua non dagoen galdetuta, dena bankuen eskuetan dagoela dio, bera "fede osoz" joan zela etxeak eraikitzen.

Hiart Arluziaga alkateak Errekaldeko etxeetan gertatutakoa etxebizitzarekin azken urteetan bultzatu den espekulazioaren "ondorio gordina" dela irizten dio eta "kaltetuak ahulenak" izan direla. Baina latzena, sistema bera dela uste du: "Sistemak berak espekulazioa babesten du eta herritarrek inolako babesik gabe uzten dituela esan daiteke".

Bestetik, permutak ze egoe-ratan dauden galdetuz, erantzun du udala Arkitektoen Kutxarekin harremanetan dagoela herritar hauen interesak defendatu eta ahal den irtenbiderik onena lortzeko.

Elkarretaratzea deitu dute ekainaren 14rako

Lupe Gomez eta bere familiak, ekainaren 14an kontzentrazioa egingo du Plaza Barrian 20.00etan. Alde batetik, jasotako babesari eskertu nahi du "alargundu nintzen oso babestuta sentitu nintzen eta eskerrak eman nahi dizkiot herriari". Elkarretaratzearekin, Arkitektoen Kutxari permutekin ez daitezela ahaztu eskatu nahi diote eta baita, euren ustez erantzule nagusia den Manuel Aizpuru legearen aurrera eraman: "Ez dezatela gure pisua saldu, mesedez".



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Adreiluaren sukarrak bat baino gehiago jo du azken hamarkadan Euskal Herrian. Negozioa egitean, zenbait gazta zati haundiena bereganatzen saiatu izan dira. Inon ez dagoen diruarekin eraikitzen hasi eta erosleei, ezkutuan, lapurreta eginez. Horixe ustez, Errekalde kaleko atarietan gertatu zena.

Zer egingo zenduke iruzur ekonomiko baten biktima bazina?

LOLI NIEVAS



Ba ez dakit, pentsatzen dot jende honek egin dabena egingo neukela nik be. Ez dotena ulertzen da zela jarraitu ahal dabena gizonak hor zihar eraikitzen. Azkenian, honek danak, familiak hondatzen ditu.

JAVIER MENDICUTE



Justizia aurrera eruangoneuke erantzulia. Kontua da oso geldua dala justizia, begiratu kiroldegi gaineko orubia be zela dagan. Errezena etxiak egittia da, horretarako ez dozu dirurik bihar. Ze egin leiken? Ez da erreza.

LORENZO ALONSO



Nik antzeko fregaua daukat eta erantzulia nunbaitetik zintzilikatuko neuke. Soralueko erantzuliak antza, Santanderren eraikitzen jarraitu zeban, hamen jasotako diruakin. Legia ez bada aldatzen, gauza gutxi egin leikez!

MATILDE SOTO



Ez dira konpontzeko kontu errezak. Gainera abokatuetan be diru mordua juaten da, eta garestixagua urtetzen jatzu dana. Etxe berrixekin hori pasatzen da, dirua ipintzen dala eraikina egin barik dagonal. Espero dot hori aldatzen juatia.

Eman zure iritzia sarean





Disainua eta Lormena

Poligono Amillaga, n^o 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak




ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Errekalde 21
20590 SORALUZE

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK

ERRABAL KALEA 15 **T. 943 75 18 34**



Kultur ekitaldien agenda

Gaur, ekainak 8

HITZALDIA

"Sozialismoa eta homosexualitatea"
18:00etan, Gaztetxean

Ant: Gaztetxea

ANTZERKIA (Aurrestrenaldia)

"Lingua nabajorum.
Euskararen historia txoroa".
22:15ean, Zinean

Ant: Udaleko Kultura Batzordea

Ekainak 9, zapatua

V. ERROMERIA EGUNA

Egitaraua: P.com

Ant: Euskal Jai Batzordea

KONTZERTUA

Desastrozozombies taldearekin
22:30ean Gaztetxean

Ant: Gaztetxea

Ekainak 10, domeka

EZOZI AUZOKO JAIK

Ant: Ezozia Auzoko Jai Batzordea

Ekainaren 11tik 16ra

ERAKUSKETA

"Jaietako Kartelak"
Kiroldegiko erakusketa aretoan

Ant: Udaleko kultura batzordea

Ekainak 13, eguaztena

HITZALDIA

"Nekazaritza birsortzailea"
Hizlaria: Ana Digon
19:00etan, Zinean

Ant: Jon Martinez

Ekainak 15, barixakua

BERTSO TXAPELKETA

"Plazatik Gaztetxera"

Afaria: 21:00etan

Saioa: 22:00etan

Gaztetxean

Ant:Plazatik Gaztetxera

Ekainak 21, eguena

KANTALDIA

"Zuberoako musikagintza"
herriko musikariek gidatuta.

19:00etan, abadetxeko aretoan

Ant: Udaleko Kultura Batzordea

Ezozia auzoko jaiak domekan

Ezozia auzoko Jai Batzordeak zitari hutsik egin gabe egun osoko egitaraua antolatu du, urte-

roko eskaintzari ekimen herrikoiz batzuk gehituz, auzotarren eta inguruko en zuzen inguratu zirenek.

Egitaraua:

12:30ean MEZA, ondoren SALDA eta TXORIZO banaketa, trikitilariak lagundurik.

13:00etan Arana anaiei eta Pabi Astondoaren HERRI KIROL erakustaldia. Jarraian San Andres eta Ezoziko auzotarren arteko herri kirol DESAFIOA.

14:30ean Armendi jatetxean BAZKARIA.

18:00etan ARNO bere zezentxo eta poniekin. Jaia, umeen opari banaketarekin bukatuko dute.



Iaz Ezoziko eguna giro onean pasa zuten inguratu zirenek.

Anton Urrestiren margolana garaile

XIX. kaleko margo lehiaketan Anton Urrestimendarrak eraman du lehen saria etxera, 600 euro. Bigarren lan onena eta sariari dagozkion 400 euroak Jesus M^a Saez de Vicuña jaso ditu eta Koldo Gojenolak 200 euro iraba-

zi ditu hirugarren lan onena aurkeztearren. 12 urtetik gorako artean Ianire Makinaik jaso du saria, umeean lehena Garazi Aizpurua izan da. Bigarren eta hirugarren Manex Dominguez eta Anton Akizu izan dira.



Iturria: Nerea Isasti

Laboaren kantuak nagusien egoitza

Aurreko eguenean Nagusilan Elkarteak boluntario diren Jose Ignaziok eta Robertok Mikel Laboaren kantakerrezitatuzkie ten egoitzako aittitta eta amamei. Bergarako jaietan ere izan dira egoitzakoak eta seguruenik datorren astean Mendaroko txokolate fabrikara bisita egingo dute.



Iturria: Mesedeetako Amaren egoitza



DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21
50 Posta Kutxatila
20590 Soraluze

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Denboraldi amaierako afaria egin dute Sorakoek

Iturria:
Nerea Isasti



Klubak saritutako futbolariak: A. Odriozola, E. Azula, E. Placencia, I. Larrañaga, I. Uriarte, B. Catalan eta I. Basaldua (J. Unanue falta da).

Ekainaren 2an Soraluze Futbol taldeko jokalaria, entrenatzaile, zuzendaritzako kide eta klubeko arduradunek denboraldi amaierako afaria egin zuten Txurruka jatetxean. Mahairen bueltan ehun lagun inguru batu ziren eta afal ostean denboraldiko jokalaria erregularrenak eta goleatzaileenak saritu zituzten.

Sei soraluzetar Hiru Handiak mendi frogan

Aurreko asteko barixakutik zapaturako gauerdian hasi zen bi urtean behin egiten den

Iturria: Carlos de Cos



Orbe eta Galarraga lasterketaren 60. kilometroan Landako urtegiara bidean.

Hiru Handiak iraupen luzeko mendi frogan. Gorbeia, Anboto eta Aizkorri batzen dituen 100 kilometroko lasterketa honetan herriko sei korrikalarik hartu zuten parte: Pablo galarrak, Xabier Lijok, Andoni Callesek, Anartz Mugikak, Bartolome Parrak eta Jose Luis Lasak. Gabean egindako beroak froga guztiz baldintzatu zuela aipatu dute korrikalariek baina pozik daude lortutako emaitzekin.

Barçako jarraitzaileek urteroko afaria egin dute

Iturria: Carlos de Cos



Errege kopa txapelketako titulua aitzakia hartuta, hamasei lagun inguru batu zituen aurreko zapatuan Txurruka jatetxean antolatu zen F.C. Barcelonako jarraitzaileen afariak. Elkar ezagutzeaz gain, afizio bera konpartitzen duten herritarren arteko harremanak sendotu nahi dituzte topaketokin.

EMAITZAK

PELOTA

Titin III – Zubieta	10
Mtz de Irujo – Laskurain	22

AGENDA

PELOTA

Domeka 10, 20:15ean Adarragan
Xala – Laskurain
Titin III – Merino II

MENDI IRTEERA

Noiz: Ekainak 17, domeka
Nora: Galdonatik Mutrikura
Irteera: 9:00etan Estazio kaletik

OHARRA

KIROLDEGIA

Arane kiroldegia ikastaro eskaintza murriztagoa du uztaileko. Datorren hileko kirol jardueraren batean izena eman nahi dutenek uztailearen 15a baino lehen egin beharko dute.

Uztaileko eskaintza:

GAP-BOSU

martitzen eta eguenetan, 19:15ean.

DANTZAK

barixakuetan, 20:30ean.

KARATE

martitzen eta eguenetan, 19:30ean.

PILATES

astelehen eta eguaztenetan, 19:15ean

SPINNING:

astelehen eta eguaztenetan,
19:00etan eta martitzen eta eguenetan, 20:00etan.

ZORION AGURRAK



Zorionak Maier!!
Ekainan 2xan urtebete!
Muxu potolo bat guraso eta
etxekuen partez!



Garazi Aizpurua
Ekainan 12xan 9 urte
Zorionak txapeldun!
Patxo haundi bat
etxekuen partez!



Nagore Caballero
Maiatzan 30ian 5 urte.
Zorionak potxola!
Egun zoragarria pasa deizula,
maitte zaittugun danon partez,
bereziki Jonen partez!



Nerea San Jose eta Lara Ballesteros
Maiatzan 30ian eta
ekainan 7xan, 14 urte!
Zorionak polittack eta ondo pasa!



Maddi Oregi
Ekainan 7xan 2 urtetxo!
Zorionak txikitxu! Segi holako
sorgintxua izaten, txokolatzeko
patxo bat etxekuen partez!



Enara Garitano
Ekainan 9xan 3 urte!
Zorionak bitxito!! Muxu
haundi bat etxekuen partez.



Zorionak Enaitz!
Ekainan 4an 27 urte!
Zure poza gure poza da!
Muxu galantak etxekuen partez!



Zorionak Iñaki!
Ekainan 6xan 58 urte!
Beti barrezka jarraitu!
Zorionak eta patxo mordua,
etxekuen partez!



Irati Unamuno Fernandez
Ekainan 10ian 3 urte!
Zorionak poxpolintxo!
Muxu potolo bat danon partez,
batez be Urkon partez.

jaiotakoak

IZEI MUGURUZA MARTIN




hildakoak

JOSE HUERTA NAVARRO
BENITA ERRAZU ALKORTA



LEHIAKETA

- **Zein ageri da argazki honetan?**
- **Saria: Iñarra harategian 30 euro gastatzeko bonoa.**



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- **Irabazlea: Onintza Narbaiza**
- **Pili Espiga**, Txuritxu gozodendakua da aurreko aleko argazkixan agertzen zana.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da. Ikusi pertsonaia guztiak Flickr-eko Pil argazkiak-en.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Jose Angel Bolunburu "Biribiltxo"

HERRI KIROLAK EZOZIN

Ezoziko jaietan jasotako erretratua da 1934an. Biribiltxok ezin hobeto harrapatu zeban sasoi haretan herri kirolen bueltan sortzen zan girua. Ezoziko harri jasotze erakustaldi honek mutiko eta gizonezkuak batu zittuan, tartian emakume gazte batzuk be bazeren arren. Zein baino zein berotuago baina umore eta giro ona lagun zeukela argazkixan, Jose Ariznabarreta "Arritxa" k eta J. Larreategi "Korta haundixa" k harri jasotze lanetan dihardute, lau gizonezko osatutako epaimahaixan begiradapian.

Argazkixan, ezkerretik eskumara:

Lehengo ilaran: Jose Ariznabarreta "Arritxa" † eta J. Larreategi "Korta haundixa" †.

Epaimahaixan: Anacleto Berraondo "Txitia" †, Migel Oregi "Zabale" †, Tomas Placencia † eta Mauricio Larrañaga †.

Soraluzeko
Euskal Jaixak

2012

Domentx Uzin eta Jon Basaurik gidatuta!

Zuberoako musikagintzan barrena

Zuberoako musika eta kanturik esangurasuenetako
batzuk ezaqutzeko aukera paregabea.

Ekainak 21, egvena
19:00etan Abadetxeko aretoan.



Antolatzaileak:



Laguntzailea:



Javier Alberdi



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carniceria
autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

TXURITXU

Zuekin
gozatzen

943 75 24 43

Bonito 11on, Bolso 22 behean.



**Soraluzeko
Kooperatiba
Elkartea**

1910etik

943 75 13 45

**ARMENDIA
JATETXEA**

Ezoz Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA



Txoko kafetegia

*Kafe ederra hartzeko
txokorik onena!*

*Kalebarren 22. behean,
Soraluze. Tel. 943 75 17 89*



**MARI MAR
HARATEGIA**

*Gurean
Euskal Herriko
produktuak!*

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

Baietz 100 soraluzetar!

*animatu eta
izena eman
605 706 086
telefonora deituta!!*

AIRE  GARBIAK
birra nazar

*Soraluzetik bi autobus:
Goizeko 9:00etan Estaziñoko geltokitik.
Buelta 13:30ean*

** Hamaietakoa egingo dugun baina norberak eraman behar du.*

